


SAN INAZIO JAIK SANTA BARBARAN

Herriko aizkolariak zein baino zein

Hiru bikote arituko dira Hernaniko Aizkolari Txapelketan: Roxario Pikabea eta Andoni Arretxe, Imanol 'Paolla' eta Antton 'Guardi,' eta Joxe Antonio Tapia eta Juan Migel Larrebide. Morkaiko kultur taldeak antolatu du.



Ereñotzu eta Martindegi-
ren arteko desafioak sua
piztu, herriko aizkolarie-
kin bilera egin eta ti-ta!
Hernaniko Aizkolari Txapel-
keta antolatu.

**SEINA KANA ERDIKO
TXANDA LIBREAN**
Lana ere ez dute brometakoa.

40 urteko pinu egurra, eguzki-
tan lehortua eta "bihotz gogo-
rrekoa".

**"PIKABEA ETA ARRETXE
FABORITO"**

Hala esan digu Antton
Guardik. "Horiek lehen ere
ibilita daude eta ondoena pre-
paratuta ere berak egongo

dira!" Gainontzekoak ere ez
dira, ordea, sekula aizkora
eskutan hartu gabeak: Larre-
bide eta Tapia asko ibiliak
Guardi eta Paolla berriz ia
erabat herri kiroletan dabilta-
nak.

Ordubata inguruan hasiko
da. Tartean, ez diru eta ez
haserre. Bazkari ederra! □



Juan Migel Larrebide

"Lehen ere Santa
Barbaran makina bat
aldiz ibiliak gera! Gaur,
guk behintzat 24-25
minutu beharko
ditugu."



Ustez ezkutuan ibili dira entrenatzen, baina, dabilenak seina-
lea uzten duela!

Udalak herriko gizarte, kultur eta kirol arloko elkarteekin "erregistroa" egin nahi du

Talde hauek ez dute *Jarduera Ekonomikoen
Gaietako Zerga* ordainduko, eta udal mailan abantaila
izango dituzte.



UDALAK herriko elkarte,
talde eta klubei dei egiten die
"erregistroan" izen emateko.
Irabazi asmorik ez dutenak
sartuko dira "interesarako"
diren neurrian.

AURKEZTU BEHARREKOAK

Taldeek agiri hauek aurkeztu
beharko dituzte:

- Elkarteko estatutuen fotoko-
pia.
- Eusko Jaurlaritzako errejis-

troko inskripzio fotokopia
edo, izan ezean, inskribatze
zenbakia.

- Elkarteko ordezkariak izen-
datu izanaren egiaztagiria.
- Elkartearen helbidea.

EKINTZAK BALORATU

Elkarteak egindako ekintzen
memoria eta egitasmoak oso
kontuan hartuko dira eta baita
kide kopurua ere. Udalak era-
bakiko du eskaera onartu al
ez. □

Bihar da odola emateko eguna

Hileroko lehen asteartean arratsaldeko seiak eta
erdietatik zortziak eta erdiak arte eman liteke.
Prest dagoena anbulatoria azaldu

brintza

BRINTZA, S.L.

Juan de Urbieto 15
Tel. 943 33 12 67
Faxa.: 943 33 08 92
20.120 HERNANI



LAN AHOLKULARITZA
AHOLKULARITZA FISKALA
ASEGURUAK, INBERTSIOAK



ETXE ONENAK, S.A.

**GARAJE ITXIAK
'OBLATOS'ETAN
SALGAI**

Informatu eta saldu:
☎ 943 33.22.37

■ PELOTA

Oiaga, debutean maisu

Larunbateko pelota jaialdian, ondo jokatura irabazi zituzten bi hernaniarrek euren partiduak


JENDEA bero hurbildu zen Josu Oiaga eta Iñaki Esnalen partiduak ikustera. Lehenengoak debuta zuen eta bigarrenak beste behin ere bere maila konfirmatzeko aukera. Ikuskizun ederra eskeini zuten Besagain enpresako bi profesionalek.

JOSU NAGUSI

Legorburu eta Alonsok 22 eta 11 galdu zuten Oiaga eta Fuerteren aurka. Atzelariaren laguntzaz, nabarmen utzi zuen hernaniarrak, aurreko koadroetan duen habilezia. Txokoan bezala zabalean, ederki garbitu zituen txapagainak!

ESNAL BIKAIN

Esnalek bere gain hartu zuen jokoaren pisua eta oso trebe ateratu zuen aurrera, haseran partidu zaila zirudiena. Azken emaitza: Esnal eta Zubiagak 22, Zabala eta Oregik 21. □



Noiz izango ote dugu elkarren aurka ikusteko aukera!

■ ARRAUNA



Hernaniko trainerua Urumean, bedeinkatu berrian.

Trainerua ezinean eta batela bigarren

ORIOREN atzetik hiru segundora sartu ziren.

Hondarribian, hamaikagarren postuan sartu ziren; Bandera berriz, Santurtzira.

BIHAR ONENEKIN PASAIAKO BANDERAN

Lehenengo tandan Donibane, Trintxerpe, Koxtape eta Arraun izango dira; eta bigarrean Zumaia, Ur-Kirolak, Hernani eta Santiagotarrak. Kontrario gogorak dituzte, baina, ez dute behintzat berriz hamaikagarren egiteko arriskurik. □

Bihar eta etzi ez da Kronikarik izango

ZENBAITEK ez dauka garbi Kronika noiz ateratzen den. Ostegunetik astelehenera ateratzen da. Astearte eta asteazkenetan jai egiten du.

Beste egunkariak saltzen diren tokietan eskatu lasai, debaldekoa da-eta. □

IRUNE
Estetika

- DEPILAZIOAK
- BETILEAK
- MASAJEAK
- AURPEGIRAKO TRATAMENDUAK
- MAKILAJEA
- MANIKURA
- PEDIKURA
- SOLARIUMA


eta orain...

ZUTIKAKO SOLARIUMA

Kardaberaz, 51-Behea -Tlf. 943 55 71 13 -20120 HERNANI

LEHIAKETA

BA AL DAKIZU NON DAGOEN?



KRONIKAK proban jarriko zaitu. Ia Hernani zenbat eza-gutzen duzun benetan! Guk, astelehenero, herriko leku edo gauza baten argazkia aterako dugu eta zuk zein tokitan dagoen asmatu.

■ **Erantzunak:** *Kronikako* buzoian utzi: Larramendi 11, behe. Izen-abizenak eta telefonoa jarri. **Aurreko astekoa:** Etxeberri.

■ **Epea:** astebete.

■ **Saria:** urte bukaeran gehien asmatu dituzten bientzat *Kronikaren* urteko bilduma.

A G E N D A

♦ SAN INAZIO JAIK

⇒ 10:00 Diana herriko kaleetan zehar

Santa Barbaran

⇒ 12:00 *Indiori* omenaldia.

⇒ 12:30 Meza ermitan.

⇒ 13:15 Atarrabiyo eta *Indiori* omenaldia.

⇒ 13:30 EUSKAL JAIALDIA. Trikitilariak: Leire eta Itsaso; bertsolariak: Josu Oiartzabal, Xabier Legarreta, Unai Agirre, "Aterpe" eta

Garin.

⇒ Ondoren Hernaniko Aizkolari Txapelketa bikoteka.

⇒ 14:30 Herri bazkaria.

⇒ 17:00 Erromeria eta haur jokuak

Saretxon

⇒ 13:00etatik aurrera erromeria arratsalde osoan AGAUNTZ taldearekin.

☎ TELEFONOAK

- Taxiak: 943 550093
- Udaltzaingoa: 943 333288
- DYA: 943464622
- 943 335533
- Anbulatorioa: 943 557750

✚ FARMAZIAK

► Egunez: Aizpuru

Latxunbe Berri, 11
☎ 943553582

► Gaez: Diaz

Andoain, Nagusia 19
☎ 943592057

✚ ASTEARTEA

► Egunez: Gomez

Nagusia, 15
☎ 943554892

► Gaez: Zatarain

Andoain, Arteta Z/G
☎ 943590802

✚ ASTEAZKENA

► Egunez: Aizpuru

Latxunbe Berri, 11
☎ 943553582

Gaez: Urbistondo

Lasarte, San Frantzisko 1, b
☎ 943366567

**Zure publizitatea
hemen**

HERNANIKO
kronika

☎ 943 330899

kronika@topagunea.com